

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPEN¹

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2008/818/EE ERABAKIA, 2008ko urriaren 22koa, Globalizaziora Egokitzeko Europar Funtsa mobilizatzeari buruzkoa, Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen 2006ko maiatzaren 17ko erakundeen arteko akordioan, aurrekontu-diziplinari eta finantzak ongi kudeatzeari buruzkoan, 28. puntuan araututakoari jarraiki.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «*DECISIÓN DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 22 de octubre de 2008, relativa a la movilización del Fondo Europeo de Adaptación a la Globalización, de conformidad con el punto 28 del Acuerdo interinstitucional de 17 de mayo de 2006 entre el Parlamento Europeo, el Consejo y la Comisión, sobre disciplina presupuestaria y buena gestión financiera*» (*Diario Oficial de la Unión Europea, L 285/13, 29.10.2008*)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

II

(EE/Euratom Tratatuak aplikatzeko erabakitako egintzak, derrigorrez argitaratu behar ez direnak)

ERABAKIAK

EUROPAKO PARLAMENTUA ETA KONTSEILUA

EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN ERABAKIA

2008ko urriaren 22koa

Globalizaziora Egokitzeko Europar Funtsa mobilizatzeari buruzkoa, Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen 2006ko maiatzaren 17ko erakundeen arteko akordioan, aurrekontu-diziplinari eta finantzak ongi kudeatzeari buruzkoan, 28. puntuan araututakoari jarraiki.

(2008/818/EE)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUAK

Europar Batasuna Eratzeko Tratatua aztertu dute,

Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen 2006ko maiatzaren 17ko erakunde arteko akordioa, aurrekontu-diziplina eta finantzen kudeaketari buruzkoa ⁽¹⁾ aztertu dute, eta bereziki, haren 28. paragrafoa,

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1927/2006 (EE) Erregelamendua, 2006ko abenduaren 20koa ⁽²⁾, Globalizaziora Egokitzeko Europar Funtsa sortzekoa, aztertu dute eta bereziki, Erregelamendu horren 12. artikuluko 3. paragrafoa,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Europar Batasunak Globalizaziora Egokitzeko Europar Funtsa sortu zuen («Funtsa», hemendik aurrera), batetik, laguntza osagarria emateko munduko merkataritza-erduetan gertatzen diren egitura-aldaketa handien ondorioak jasaten dituzten langileei, eta bestetik, langile horiei lan-merkatuan berriz sartzen laguntzeko.

(2) 2006ko maiatzaren 17ko erakunde arteko akordioak Funtsa mobilizatzeko aukera ematen du: hain zuzen ere, urtean 500 milioi euro gehienez.

(3) 2008ko otsailaren 6an, Espainiak Funtsa mobilizatzeko eskaera aurkeztu zuen, automobilaren sektorean egondako kaleratzeak zirela eta; bereziki, Delphi Automotive Systems Espainia, SMU enpresatik kaleratutako langileak zirela eta. 1927/2006 (EE) Erregelamenduko 10. artikuluan xedatutako finantza-ekarpenei buruzko baldintza guztiak betetzen ditu eskaerak.

(4) 2008ko maiatzaren 8an, Lituaniak Funtsa mobilizatzeko eskaera aurkeztu zuen, ehungintzaren sektorean egondako kaleratzeak zirela eta; bereziki, Alytaus Tekstile enpresatik kaleratutako langileak zirela eta. 1927/2006 (EE) Erregelamenduko 10. artikuluan xedatutako finantza-ekarpenei buruzko baldintza guztiak betetzen ditu eskaerak.

(5) Horrenbestez, Funtsa mobilizatu egin behar da eskaerei finantza-ekarpena emateko.

ERABAKI DUTE:

1. artikulua

2008. urterako Europar Batasunaren aurrekontu-ekitaldian, Globalizaziora Egokitzeko Europar Funt sarean 10.770.772 euro mobilizatuko dira, konpromiso- eta ordain-kreditu gisa.

(1) C 139 EO, 2006.6.14koa, 1. or.

(2) L 406 EO, 2006.12.30ekoa, 1. or.

2008/818/EE erabakia (EBren Egunkari Ofiziala, L 285/13, 2008/10/29koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2. artikulua

Erabaki hau *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratuko da.

Estrasburgon emana, 2008ko urriaren 22an.

ropako Parlamentuaren izenean, Lehendakaria H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean, Lehendakaria J.-P. JOUYET